

Europako herrien kristautzeaz

Antes de que la Europa que ha sido cristiana apareciera como tal, el Continente vivió un proceso de conversiones sucesivas aproximadamente durante trece siglos. La cristianización de Europa fue lenta, sucedió por etapas, a medida que el mundo exterior al Imperio Romano fue acogiendo a misioneros que llegaban desde Roma y Bizancio, y las Iglesias de Oriente y Occidente organizaban sus Misiones evangelizadoras. La política y el apostolado contribuyeron al cambio.

IV. mendetik aurrera, Inperio Erromatarra eta bertako Eliza kristaua izan ziren Europaren kristautzea sustatu eta gidatu zutenak. Inperio haren barnean jaio zen Kristautasuna, eta lehen hazkundera bertan izan zuen.

Mila urte aldartetsu

Pax romana sonatuaren ondoren (K. a. 29-K. o.180), Inperioak eta berorren inguruek bake gutxiko historia ezagutu zuten. Ez zen gozoa izan III. mendea, barruko gerra zibilak eta mugaldeen segurtasun eza gero eta larriagoak izan baitziren, kristauak Inperioko gizartea berenganatzen ari ziren bitartean.

Herri "barbaroen" kristautzea ez zen bakarrik erlijio-arazoa, baizik eta kultura, hizkuntza eta bizimodu kontrajarrien artean aukeratu beharra ere bazekarren horrek. Kristautzea, beraz, oso sakoneko arazo orokorra gertatu zen behin eta berriz Europako Lehen Erdi Aroan (V-IX mendeak). Misioak ez ziren eliz zeregina bakarrik, eta, Inperioak eta Erreinuek, denek esku hartu zuten Elizako bizitzan eta mugaldeen konbertsioetan.

Herri paganoekin harremanetan jarri eta haien erlijioak gutxi-asko ezagutu ondoren, hurbilketa erlijioso-pastoralak (eta politikoa nahi bada) modu ezberdinetan egin zitekeen. Batzuetan erlijio zaharraren eta kristautasuna-


ren arteko kidetasunak bilatzen ziren; bestetan, aurrez aurre eta bortxaz erasotzen zitzairen ohitura erlijioso zaharrei. Dena den Misioa oso astiroko lana gertatu zen.

Inperio kristautuek eta Elizak politika erlijioso ofiziala ezartzeko indarrak elkartu zituztenean, legea ere erabili zuten erlijio-aldakuntza laguntzeko: sakrifizio jentilak debekatu, tenpluak eraitsi, irudi edo idoloak birrindu, erlijio zaharreko jaiak galarazi, etab. Ebanjelioaren otzantasanak dexente galdu zuten boterearen eskuetan, eta ez da erraza jakiten kristau herritarren kristautze pertsonalagoa nola garatu zen.

Europa zabalean

Europaren kristautzeak Mediterraneo inguruan izan zituen bere lehenengo zabalgunea nagusia eta herriak, Itsaso horren inguru guztian, Ekialde Hurbiletik Gibraltarreraino. Gero, IV. mendea garrantzizkoa izan zen Inperioaren mugetatik irteteteke. Ulfilas (c. 311-c. 382) godoen apostolua edo Patrizio (c. 389-c. 461) Irlandako zelten apostolua, adibide onak dira hau gogorarazteko.

Irlanda eta Eskozian, nortasun handiko Eliza zelta bat antolatu zen, batez ere monjeek eratu eta gidatua: monje haiek Kontinentera ere jauzi egin zuten VI-VII. mendeetan, ibiltari eta erromes gisara misiolari zihoazela, Fran-



tzian eta Germanian zeuden paganoak kristautzera (Kolunban, c. 521-597; Kutbert, 634-687). Aldi bertsuan, Gregorio I.a Aita Santuak antolatu zuen Ingalaterra kristautzeko misiolari-taldea, Agustin Canterbury-koa buru zuela (597), handik denbora batera Ingalaterrako Eliza zelta bera ere Erromako moldeetara ekarri (Whitby-ko Sinodoa, 666).

Irletako Eliza erromatar horrek, VIII. mendean, bigarren misiolari-talde bat bidali zuen Kontinentera. Misiolari haietako ezagunenak Willibrord (c. 658-734) eta Bonifazio (c. 675-754) ditugu, germaniarren arteko apostoluak. Horrela egin ziren kristau Frisia, Holanda, Belgika, Saxonia eta beste. Erromak lagundu zuen horretan, eta zer esanik ez, Karlomagnok (814), Inperio berrian politika erlijiosoa bere eskuetan hartu zuenean, batzuetan indar bidez jardunda ere bai (*Capitulatio de partibus Saxoniae*, 685).

Hori dena horrela, IX. mendetik aurrera, Europako Ekialdean Bizantziotik Eliza Ortodoxoak Moldavia, Bulgaria, Errusia eta Balkanetako herriak kristautu zituen. Erromako Aita Santuak, ostera, karolingiarren aginteaz baliatu ziren, Karlomagnoren Inperio hark ekialdera zituen herriak bataiatzeko. Bizantzio eta Erromaren artean bi izen handi aipatu behar dira eslaviarren apostoluzat: Zirilo (c. 827-869) eta Metodio (c. 825-884).-

Eslaviarrak bi talde kristautan banatuta ikusiko ditugu, ondoko mendeetan. Alde batetik, batez ere hegoaldeko eslaviarrak, konbertsioaren ondoren, Erromaren esanetara geratu zirenak (Polonia, Txekia, Eslovakia, Kroazia, Eslovenia), eta bestetik, Bizantziok Ekialdeko Ordodoxiara bildu zituenak, Serbiatik Mosku eta Sofiaraino. Eliza nazionalak izango dira hauek. Bi-

zantzio turkiarren mende erortzean, eslaviarren Eliza nazionalen bandera Moskuko Patriarkagoak hartu zuen bere eskuetan.

Hainbat herriren artean ez da ahaztu behar hemen beranduko europar-mendebaldarra den bat: *magyar*-en Hungaria, azkeneko mila urtean oso katolikotzat eduki izan dena. Esteban I.a (1000-1038) Erregeak ekarri zituen hungariarrak Elizara eta berak eratu zituen Erresumako elizbarrutiak.

Estebanen belauen bereko gizona zen, Ingalaterra (1017), Danimarka (1018) eta Norvegiako (1030) hiru koroak eraman zituen Knut erregea (1000-1035), beharbada kristauki hezitakoa: eliz egiturak indartzen eta Erromarekin harremanak sendotzen saiatu zen, ez dakigu ziurtasunez benetan herriaren kristautzea bilatzen zuelako ala bere botere politikoa azkartzeko asmoz.

Alemania eta Ingalaterratik heldu ziren misiolariak Ipar Europara. Eskandinavian Suedia izan zen beranduenik bere jentiltasuna galdu zuena, XI. mendea izan zen erabakigarria herrialdearen kristautzean. Baltikokoari geroago heldu zitzaion:

XI-XII. mendeetakoak dira Baltikoko herrien kristautzerako lehen ahaleginak, eta XIII. ean indar betean agertzen zaigu "Inperio Kristauren zabaltzearen" ideia, ezpata eta gurutzea aldi berean erabiltzen zirela. Alemaniatic gidatu zuten "gurutzada misiolari" hori Ordena erlijioso-militarrek. Herrialde haietako eliz historialari nazionalak ekinbide haren bitasun itsusi hori azpimarratu ohi dute gaur egun ere. Azkenik, 1229an jarri zen Finlandia Erromako Aita Santuen babespean.

Joseba Intxausti